

SAKANAKO XXIV. NKJ TRIATLOIA

XXIV. TRIATLON JDN DE SAKANA

AURKIBIDEA INDICE

	Orrialdea
1. Data, tokia eta kokalekua.....	2
2. Partaideak.....	2
3. Ibilbideak:	
3.1. Gazteak eta kadetea.....	3
3.2. Haurrak.....	4
3.3. Kimuak.....	5
3.4. Benjaminak	6
4. Izen emateak.....	6
5. Arautegia.....	7
6. Informazio interesgarria.....	8



1. DATA, TOKIA ETA KOKALEKUA

DATA: 2026ko uztailaren 18an

ORDUA: 1.go lasterketaren hasiera: 10:00etan

TRANSIZIO GUNEA ETA HELMUGA: Altsasuko Dantzaleku igerilekua

IRTEERA: Altsasuko Dantzaleku igerilekua



2. PARTAIDEAK


Hurrengo taulan ikusi daitezke material kontrol eta lasterketa hasieraren ordutegiak, maila desberdinak (emakume zein gizonezkoentzat), dagozkien jaiotze datak eta bakoitzak egin beharreko distantzia.

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	IGERIKETA DISTANTZIAK	BIZIKLETA BTT DISTANTZIAK	OINEZKO LASTERKETA DISTANTZIAK Atletismo pistan
9:35-9:50	10:00	Gazteak	2009 2010	250m 10 luze	5550 m 3 buelta	1600 m 4 buelta
		Kadeteak	2011 2012			
10:50-11:00	11:05	Haurrak	2013 2014	200 m 8 luze	5550 m 3 buelta	1200 m 3 buelta
11:45-11:55	12:00	Kimuak	2015 2016	200 m/ 8 luze	4000 m 2 buelta	800 m 2 buelta
12:25-12:35	12:40	Benjaminak	2017 2018	100 m 4 luze	2000 m Buelta 1	400 m Buelta 1

3. IBILBIDEAK

3.1. GAZTEAK ETA KADETEAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	IGERIKETA DISTANTZIAK	BIZIKLETA BTT DISTANTZIAK	OINEZKO LASTERKETA DISTANTZIAK Atletismo pistan
9:35-9:50	10:00	Gazteak	2009 2010	250m 10 luze	5550 m 3 buelta	1600 m 4 buelta
		Kadeteak	2011 2012			



TXIRRINDUA 5550 m

Igeri egin ondoren, gazte eta kadete kategoriako triatletak igerilekutik atera, eta 1.ºgo trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira basoko bideko 1850 metroko ibilbideari 3 buelta emanez. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.º segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA 1600 m

Oraingoan trantsizio gunetik atera eta ondoko atletismo pistara sartuko dira, bertan 4 buelta emango dituzte eta azken bueltan helmugara sartuko dira.

3.2. HAURRAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	IGERIKETA DISTANTZIAK	BIZIKLETA BTT DISTANTZIAK	OINEZKO LASTERKETA DISTANTZIAK Atletismo pista
10:50-11:00	11:05	Haurrak	2013 2014	200 m 8 luze	5550 m 3 buelta	1200 m 3 buelta



TXIRRINDUA 5550 m

Igeri egin ondoren, haur kategoriako triatletak igerilekutik atera, eta 1. go trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira basoko bideko 1850 metroko ibilbideari 3 buelta emanaz. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2. segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA 1200 m

Oraingoan trantsizio gunetik atera eta ondoko atletismo pistara sartuko dira, bertan 3 buelta emango dituzte eta azken bueltan helmugara sartuko dira.

3.3. KIMUAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	IGERIKETA DISTANTZIAK	BIZIKLETA BTT DISTANTZIAK	OINEZKO LASTERKETA DISTANTZIAK Atletismo pista
11:45-11:55	12:00	Kimuak	2015 2016	200 m/ 8 luze	4000 m 2 buelta	800 m 2 buelta



TXIRRINDUA (4000 m)

Igeri egin ondoren, triatleta kimuak igerilekutik atera, eta trantsizio gunean 1.go trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira basorantz, pibotean 180°ko buelta eman eta pista berdinetik bueltatuko dira igerileku aldera, igerilekuko hesiaren kanpoaldean pibotean 180°ko buelta eman eta 2. bueltari ekingo diote. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA (800 m)

Oraingoan trantsizio gunetik atera eta ondoko atletismo pistara sartuko dira, bertan 2 buelta emango dituzte eta azken bueltan helmugara sartuko dira.

3.4. BENJAMINAK

MATERIAL KONTROLAREN ORDUTEGIA	LASTERKETA HASIERAREN ORDUTEGIA	KATEGORIAK	JAIOTZE DATA	IGERIKETA DISTANTZIAK	BIZIKLETA BTT DISTANTZIAK	OINEZKO LASTERKETA DISTANTZIAK Atletismo pista
12:25-12:35	12:40	Benjaminak	2017 2018	100 m 4 luze	2000 m Buelta 1	400 m Buelta 1



TXIRRINDUA (2000 m)

Igeri egin ondoren, triatleta benjaminak igerilekutik atera, eta trantsizio gunean 1.go trantsizioa egin ondoren, bizikletaz abiatuko dira basorantz, pibotean 180°ko buelta eman eta pista berdinetik bueltatuko dira igerileku aldera. Berriz trantsizio gunera sartuko dira eta 2.segmentua bukatu da.

OINEZKO LASTERKETA (400 m)

Oraingoan trantsizio gunetik atera eta ondoko atletismo pistara sartuko dira, bertan buelta bat emango dute eta helmugara sartuko dira.

4. IZEN EMATEAK

Izen emateak on line egingo dira <http://www.rockthesport.com/> helbidean astelehen arte, uztailak 13, hau barne. Ezin da izena eman probaren egunean. Izen ematea dohainik da, froga hau Nafar Kirol Jolasen barne dagoelako. Partaide guztiak federatuta egon behar dute talde baten bitartez.

5. ARAUTEGIA

1. Sakanako Triatloia Sakanako Mankomunitateak antolatzen du. Sakanako Triatloi taldea, Altsasuko Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin.
2. Trantsizio gunea 9:35ean zabalduko da gazte eta kadete mailentzako, eta 9:50etan itxiko da. Froga hau bukatu ondoren, 10:50etan, Trantsizio gunea zabalduko da haur mailentzako eta 11:00etan itxiko da, haurren froga hasi baino 5 minutu lehenago. Haur mailako froga bukatu ondoren, 11:45etan, trantsizio gunea zabalduko da kimu mailarako eta itxiko da 11:55etan, kimuen froga hasi baino 5 minutu lehenago; azkenik, 12:25etan Trantsizio gunea zabalduko da benjamin mailarentzako, eta itxiko da 12:35etan, benjamin froga hasi baino 5 minutu lehenago.
3. Partaide bakoitzak bere dortsala ekarriko du.
4. Igeriketa segmentua Altsasuko Dantzalekuko 25 metroko igerilekuan egingen da.
5. Bizikletako segmentuan kaskoa derrigorrezkoa da eta bizikleta mendikoa bakarrik izan daiteke.
6. Frogak irauten duen bitartean, benjamin, kimu eta haur mailako partaideek kanpoko laguntza jaso ahal izango dute, bakarrik epaile, teknikari akreditatuak edo antolakuntzako partaideengandik, arazo mekaniko bat konpontzeko. Kadete eta gazte mailako partaideek ezin izango dute inolako laguntzarik jaso.
7. Ibilbidea zaindua, markatua eta trafikoari itxita izanen da lasterketa bakoitzak irauten duen bitartean.
8. Istripuak gertatzen badira, antolatzaileak ez dira arduradunak izango.
9. Zerbitzu medikuak Olmo Anbulantzien esku egongo dira.
10. Korrikalariek, izena ematen dutenean, araudia onartzen dute.
11. Partaide guztiek Nafarroako Triatloi Federazioko epaileen esanak beteko dituzte, arautegi hau betetze aldera.

INFORMAZIO INTERESGARRIA

- Froga bukatzen denean, partaideek eta familiek igerilekutik atera beharko dira, edo gelditu nahi badute, bakoitzari dagokion sarrera ordainduko du.
- Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko antolakuntzarekin harremanetan jarri kirolak@sakana-mank.eus helbidean edo 948 46 48 66/ 683 343 854 telefonoan.

